

Bembidion (Trepanes) maculatum (Dejean, 1831) presentzia Euskal Autonomia Erkidegoan

Presence of *Bembidion (Trepanes) maculatum* (Dejean, 1831) in the
Basque Country

FERNANDO HIRIBARNEGARAI¹



LABURPENA

Bembidion (Trepanes) maculatum (Dejean, 1831) antzeman da lehenengo aldiz Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE). Era berean, berezko urmaelek espezie honen biziraupenean zer garrantzi izan lezaketen eztabaidatzen da.

• **GAKO HITZAK:** *Bembidion maculatum* (Dejean, 1831), EAE, berezko urmael iraunkorrak.

RESUMEN

Por medio de esta nota, se cita por primera vez la presencia de *Bembidion (Trepanes) maculatum* (Dejean, 1831) en la Comunidad Autónoma del País Vasco (CAPV). Se discute a su vez el papel del mantenimiento de las charcas naturales en la permanencia de la especie.

• **PALABRAS CLAVE:** *Bembidion (Trepanes) maculatum* (Dejean, 1831), CAPV, charcas permanentes.


ABSTRACT

Bembidion (Trepanes) maculatum (Dejean, 1831) is reported for the first time in the Basque Country. The role of natural ponds as a possible key habitat for the species is discussed.

• **KEY WORDS:** *Bembidion (Trepanes) maculatum* (Dejean, 1831), Basque Country, permanent ponds.


¹ Sociedad de Ciencias Aranzadi / Aranzadi Zientzia Elkartea
Zorroagagaina 11 • 20014 Donostia / San Sebastián

Bembidion (Trepanes) maculatum (Dejean, 1831) espezie arrunta da eskualde mediterraniarrean. Iberiar penintsulan (SERRANO, 2003) eta Frantziako toki askotan antzeman da. Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) orain arte antzeman gabe zegoen eta, horrenbestez, oraingo aipamena ipar aldekoena da Penintsulan.



1. irudia. *Bembidion (Trepanes) maculatum* (Dejean, 1831).

Fig 1.- *Bembidion (Trepanes) maculatum* (Dejean, 1831).



2. irudia. Elitroetako orbanak.

Fig. 2.- Elytra stains.

B. maculatum bembidiar karabidoa nabarmena da (1. irudia) eta bere antena eta hanka belztuak bereizgarritzat har daitezke. Era berean, ildaskarteko bikoiti eta bakoitietan dauzkan orban horizta batzuk (2. irudia) erabilia bere generokidea den *Bembidion (Trepanes) octomaculatum*-etik (Goeze, 1777) bereiz daiteke.

Europan hiru *Bembidion maculatum* azpiespezie daude:

- *Bembidion (Trepanes) maculatum maculatum* (Dejean, 1831), Mendebaldeko Europan.
- *Bembidion (Trepanes) maculatum serbicum* (Apfelbeck, 1902), Ekialdeko Europan.
- *Bembidion (Trepanes) maculatum atripenne* (De Monte, 1947), Kortsikan.

Maculatum azpiespezieari dagokio hemen aipatzen dena. Eredu lupetsuetan eta gazitasun maila nahikoa duten urmael inguruneetan bizi da (VIVES & VIVES, 1981), baita aberreek edaten duten eta materia organikotan aberatsak diren ur geldoetan ere.

Aleak, Araban, Kuartango udaleko bi auzotan, Sendadiano eta Marindan aurkitu ziren:

- Sendadiano, UTM 30TWN071490. Altuera: 650m. 2 ar eta 2 eme, 2010.07.18.
- Marinda, UTM 30TWN043483. Altuera: 735m. Eme bat, 2010.08.24.

Espezie hau Frantzia noizbehinkarizat hartu da (JEANNEL, 1941) eta urritzat Iberiar penintsulako iparraldean (ORTUÑO & TORIBIO, 2005). Banaketa mediterraneaneko espezie moduan sailkatuta dagoenez, Frantziako hegoaldeko eta erdialdeko eremu atlantiarrean (batez ere Garonne eta Loire ibai inguruetan) beraren presentzia deigarria da. Aspaldian ikertutako Gasteiz inguruko Salburua hezegunean espezia sekula topatu ez izana ere arraroa da (ORTUÑO & MARCOS, 1997).

Eredu mediterranean eta atlantiarren arteko aurkikuntza horrek Frantziako hegoaldeko departamentu epelenetan duen banaketa argituko luke.

Espezia aurkitu den Arabako lekuetan pagadia, erkameztia eta artadia (ZABALLOS, 1983) trantsizio fitoklimatiko gogorraren eraginpean elkarrekin bizi dira. Bertan espezia urria dela kontuan hartuta, urmael txikien etengabeko lehortze prozesuek beraren egoera arriskuan jarriko lukete. Hori gerta ez dadin nekazal ustiatze guneetan abeltzaintza estentsiboa mantentzeak berebiziko garrantzia izan dezake.

BIBLIOGRAFIA

- JEANNEL, R. 1941. *Faune de la France: Première partie Coléoptères carabiques*. Paul Lechevalier et Fils. Paris.
- ORTUÑO, V. M., MARCOS, J.M. 1997. Carabidofauna (Insecta, Coleoptera) del Área Natural de Salburua (VITORIA, ÁLAVA). *Ecología* 11:460-462.
- ORTUÑO, V. M., TORIBIO, M. 2005. *Carabidae de la Península Ibérica y Baleares. Vol. I. Trechinae, Bembidiini*. Argania editio. S.C.P. Barcelona.
- PEREZ ZABALLOS, J.M. 1983. Los *Carabidae* (Col.) de las dehesas de encina de la provincia de Salamanca. *Bol. Asoc. esp. Entom.* 6:295-296.
- SERRANO, J. 2003. Catálogo de los Carabidae (Coleoptera) de la Península Ibérica. *Monografías SEA* 9: 40-41.
- VIVES, J., VIVES, E. 1981. A propòsit d'alguns coleòpters caràbids de les zones salades espanyoles. II *Sessió conjunta d'entomologia*. Barcelona:49-53.

- Fecha de recepción/Date of reception: 23.01.2012

- Fecha de aceptación/ Date of acceptance: 25.09.2012